

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Zerealak eta lekadunak biltzeko kanpaina bukatu da

Zerealaren emaitzak normalak dira sail historikoaren aldean, eta aurreko kanpainakoak baino zertxobait txarragoak

Martes, 09 de agosto de 2011

Uztailaren 29tik abuztuaren 5era egun eguzkitsiak nagusi izan ziren; tenperatura arruntak izan ziren sasoirako, norabide aldakorreko haizea egin zuen eta ez zuen euririk egin, abuztuaren 2ko gauean izan ezik, ekaitza egin baitzuen, oso esanguratsua izan ez bazen ere.

Uztailaren bigarren hamabostaldian tenperatura baxuak eta egun hodeitsuak eginda, beroa egiteak eta lurretan hezetasuna egoteak modu uniformean eta pixkanaka heltzen diren udako sail ureztatuetoako laboreen garapenari lagundu diote.

Lehorreko lurrian, zenbait laborek, hala nola ekilorea, artaberdea eta patatak, aurrera egin dute egoera fenologikoetan, hala ere, erreserba hidrikoak ez dira oso esanguratsuak. Beraz, hemendik gutxira euria egitea beharko dute, produkzio-zikloa osa dezaten.

Zereala biltzeko kanpaina bukatutzat hartu dute. Iragan astean biltzeko falta ziren azken partzeletako uzta bildu zuten, laborantza-arearen ekialdeko eremuetan. Aurreko txostenetan emandako informazioaren laburpen gisa, Nafarroako aurtengo kanpainaren emaitzak normalak direla esna daiteke, sai historikoaren aldean, eta aurreko kanpainakoak baino zertxobait txarragoak.